

EGOIAZIA 01 KOADERNOA:

INGURUMEN KUDEAKETA ADOSTUA ETA ANTOLATUA ALTO PIURAREN KORRIDOREAN, PERU

KOKAPEN GEOGRAFIKOA ETA TESTUINGURU SOZIALA

Piura, Callao Probintzia Konstituzionalarekin batera, Peru osatzen duten hogeita lau departamentuetako bat da. Herrialdeko ipar-mendebaldean kokatzen da, eta muga egiten du iparraldean Ekuadorrekin. **1.858.617 biztanle** edukita, herrialdeko bigarren departamentu populatuena da –Lima departamentuak bakarrik ditu gehiago–, eta haren dentsitate demografikoa **46,7 biz/km²**-koa da, laugarrena biztanleen dentsitateari dagokionez.

Piuran Andeetako mendi lerroa, oihan altua, baso lehor ekuatoriala, bailara tropikalak eta basamortuak (hegoaldean) daude, eta itsas korrante hotzak nahiz beroak jasotzen ditu urteko sasoi guztietan. Piurako



departamentuaren geografia askotarikoa da, kostaldeko basamortuaren paisaietatik hasita Andeetako eremu garaietako paisaietara.

Piurako eskualdean, **natura baliabideak ugariak dira, eta dinamika ekonomiko dibertsifikatuak daude**; bestalde, haren kokaleku geoekonomikoa egokia da, eta herrialdeko produkzio azpiegitura onena du (kostaldean behintzat); hala eta guztiz ere, mendi lerroko probintzietan eta landa eremuan pobrezia balio altuak eta muturreko pobrezia egoerak ematen dira, eta herrialdeko giza garapen indize apalenak ditu.

Eskualdeko **pobrezia tasa % 35,1koa da, eta muturreko pobrezia, berriz, % 6,6koa**. Canchaque eta San Miguel de El Faique barrutien pobrezia indizea are handiagoa da: % 53.3 eta % 60.6, hurrenez hurren, eta muturreko pobrezia % 17.9koa da bi kasuetan; indize horiek Piurako eskualdekoak baino handiagoak dira, eta barrutietan urrun dauden landa eramuetan bizi diren herritarren artean ematen dira batik bat.

ALTO PIURAKO KORRIDOREA

Alto Piurako Korridorearen lurraldea 6 barrutik osatzen dute:

hiru Morropón Probintzia-koak dira (Buenos Aires, Salitral eta San Juan de Bigote), eta beste hirurak Huancabambako Probintziakoak (Canchaque, Lalaquiz



eta San Miguel de El Faique). Barruti horietan anemia indize handiak eta haurren desnutrizioa ematen da, eta osasun zerbitzuak eskuratzeko aukera txikiagoa da.

Arazo horiek guztiak pobrezia zifren parte bat dira, Huancabamba herrian % 67,8koa eta Morropónen % 53,1koa baita; hori dela eta, Ayabacarekin batera, eskualdeko probintzia ahaztuak dira.

Datuk	Giza Garapen Indizea		Bizi itxaropena jaiotzan		Bigarren hezkuntza osoa dutenak (18 urteko biztanleak)		Hezkuntza urteak (25 urtekoak edo hortik gorakoak)		Familiako per capita sarrerak	
	GGI	Rankina	Urteak	Rankina	%	Rankina	Urteak	Rankina	Sol berriak hileko	Rankina
Huancabamba	0,265	189	65,87	183	50,51	137	4,55	187	250	187
Morropón	0,432	87	74,5	88	58,88	92	6,04	127	608,9	89

PRODUKZIOA

Korridorearen barruan, **kostaldeak eta mendi lerroak bereizitako bi espazio daude**, eta ekonomia eta gizarte ahalmen nabarmena eskaintzen dute, lurzoru ekologikoen dibertsitatea handia delako eta ekonomia dibertsifikatu baterako egokiak diren lurak daudelako.

Nekazaritza da jarduera ekonomiko nagusia. Hainbat espezie landatzen dira: Hedadura handieneko produkzio unitateetan bananondoak, limoiondoak, kafe organikoa eta azukre integral ekologikoa (panela) landatzen dira, guztiak ere esportazio merkatuetara bideratuta; horiek batera, produkzio unitate txiki asko eta asko daude, eta zeregin garrantzitsua betetzen dute kostalde-mendi lerro artikulazioan, eskualdeko dietan oinarritutakoak diren elikagaiak ematen baitituzte, hala nola barazkiak, patatak, ollukoak, okak, zalkea, artoa eta fruta arbolak.

Nekazaritza minifundista da nagusi (nekazaritzara batez beste 2,8 hektarea bideratzen dira, eta estatu osoan, 3,2 hektarea) eta eskualdeko nekazaritza azaleraren % 67,8 ureztatu egiten da.

INGURUMEN KUDEAKETA

Eskualdeko landa barruti gehienetan arazo larriak daude, honako gai hauen inguruan:

- Erreproduzio eta produkzio jardueren eraginez sortutako **hondakin solidoak ez dute trataera egokia jasotzen**; hondakin solidoen kudeaketan gabeziak daude, barrutietako hiriburuetan bakarrik daudelako hondakinak jasotzeko eta uzteko sistemak. **Ez daude betelan sanitarioak**, oso garestiak direlako eta inbertsio publikoen sistema neketsua eskatzen dutelako; hondakin solidoak uzteko lekuak daude, kokaleku desegokietan kokatuak, eta kutsadura fokua izaten dira. Herri guztietan zaborra euri uren drainazetara, ibaietara eta amildegiara botatzen da, ur bideak kutsatuz.
- Ur eta saneamendu zerbitzua emateaz arduratzen diren erakunde komunitarioek, Administrazio eta **Saneamendu Batzar gisa (JASS, Juntas de Administración de los Servicios de Saneamiento)** ezagutzen direnek, **ur zerbitzu eskasa ematen dute**, bai zerbitzuaren estaldurari bai uraren kalitateari erreparatuta. JASS horiek oso ahulak dira, erakunde gisa, eta ez dituzte tresna administratiboak

eta protokoloak zerbitzuen kudeaketarako. Piura eskualdean, **heritarren % 12k bakarrik kontsumitzen du ura modu seguruan**, eta Alto Piuraren korridorearen barruti pobreenetan, berriz, inork ez. Horrek eragin negatiboa du biztanleen osasunean, eta bereziki lehen haurtzaroko hurrengan, anemiak eta desnutrizioak eragindako gaixotasunak hartzen baitituzte.

- Azpiegitura kaxkarrak eta jarduera desegokiak direla eta, **giza kontsumorako eta ureztatzeko uraren kondukzioa, banaketa eta erabilera ez dira eraginkorrak**, eta horrek ur gehiegi galtzea dakar.
- **Gabeziak daude zerbitzatutako uren tratamenduan eta iraizkin uren tratamenduan**. Barrutietako hiriburuetan bakarrik daude oxidazio urmaelak eta ez dituzte gutxieneko baldintzak betetzen; are gehiago, batzuetan, kutsadura fokuak dira.
- **Zuhaitzen mozketak eta deforestazioak** inpaktu txikitzaile izugarri handia dute ekosistemetan, baliabide hidrikoen murrizketan, lurzoruaren higaduran, oreka biologikoan eta biodibertsitatean. Huancabamba da probintziarik kaltetuena, **azken 20 urteetan 313 mila hektarea deforestatu baitira**.

Errealitate horren aurrean, **eremu lokaletan eta modu parte hartzailean ingurumen plangintza eta kudeaketa sustatzen duen araudi bat adierazi da**. Udalerriek plangintza tresna batzuk (ingurumen diagnostikoa, politika, agenda eta plana) eduki behar dituzte, lurraldearen ingurumen kudeaketaren esku hartzea orientatuko dutenak.

Era berean, gobernu zentralak pizgarri bereziak ematen dizkie udalerriei, tokiko erakundeak hobetzeko ingurumen kudeaketan; hala, sinergiak adosteko eta sortzeko instantzia bat sortu du **Udal Ingurumen Batzordea (CAM, Comisión Ambiental Municipal)** izenekoak, non funtzionarioek, erakunde pribatuak eta gizarte zibilak tokiko ingurumen politika kudeatzen duten; era berean, Udal Arlo Tekniko bat sortzea bultzatzen dute.

Alto Piuraren korridorearen barrutietan instantzia horiek sortu dira, baina funtzionamendu egoki bat lortzeko zailtasun eta gabezia handiak dituzte.



KLIMA ETA KLIMA ALDAKETA

Piura klima aldaketaren kalte gehien jasan ditzakeen eskualdeetako bat da, bi arrazoi hauengatik: lehena haren kokaleku geografikoa; Ekuadorreko lerrotik gertu dago, klima erdi tropikala du, eta horren eraginez tenperaturak landareek eta animaliek behar dutena baino gehiago igotzen dira. Bigarren arrazoia da kostaldean kokatzen dela eta haren kostaldearen aurrean, hain justu, El Niño fenomenoak sortzen den gune kobektiboa dagoela; beraz, eurite gogorrak izaten dira; horrez gain, ekuatoreko tenperaturak eta itsasoaren gainazalekoak behera egiten dutenean, La Niña gertaerak sortzen ditu, garai hotzagoei eta gertaera meteorologikoak gertatzeko probabilitate handiak emanez.



Urteko batez besteko tenperatura 24 °C-koa da, eta udan 35 °C-tik gorakoa izaten da, 40 °C-ra iritsita El Niño fenomenoak ematen denean. Andeetako eremuetan, gauak hotzak dira, eta goizak, epelak.

Euri sasoiak urtariletik martxora izaten da. Euriak, urteko batez bestekoari erreparatuta, 410 mm eta 1200 mm artekoak izaten dira, eta goiko eremuetan egiten du euri gehien.

EMAKUMEAREN EGOERA

Herrialde honetan, legedian eta bazterketa positiboko zenbait neurritan aurrera egin bada ere, genero desberdintasun handiak daude oraindik:

- **Landa eremuan bizi diren emakumeen % 26,2 alfabetatugabeak dira**. Gizonen kasuan, ordea, % 8 bakarrik.

- Batez beste, **gizonezko profesional batek emakumezko profesional batek baino % 40 gehiago irabazten du**, antzeko ezaugarriak dituen estatuko lanpostu batean.
- Emakumeak, batez beste, **bere lan denboraren % 52 pasatzen du ordaindu gabeko etxeko lanetan**, eta gizonak, ordea, bere lan denboraren % 24a.

Genero arrakala nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: indarkeriarena, hezkuntzarako sarbidearena, diru sarrerena, eta ordezkaritza politikoarena. Alderdi horiek guztiek desabantaila edo desberdintasun egoeran uzten dituzte emakumeak, gizonen aurrean.

Alto Piurako korridorearen barrutietan, arrakalak ematen dira ere oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko unean, eta

horrek eragin zuzena du pertsonen garapenean, eta areagotu egiten du emakumeen erreprodukzio lanaren zama etxean.

Azken urteetan, emakumeak desabantailan uzten dituen arazo horren gaineko kontzientziazioak gora egin du. Piurako Gobernu Erregionalak hainbat ordenantza onartu ditu, emakumeen egoerak hobetzeko xedea dutenak; horien artean, nabarmentzekoa da departamenduan emandako zerbitzu publiko guztietan genero irizpidea sartzea, Genero Berdintasuneko Eskualdeko Plana onartzea, eta hizkuntza sexista baztertzeko bultzatzen duen ordenantza. Ostera, ahultasunak hautematen dira politika horiek landa eremuetan ezartzeko unean.

Horrenbestez, Alto Piurako korridorearen agintari politikoek natura baliabideen eta biodibertsitatearen aprobetxamendu eta plangintzarako politikak eta estrategiak bideratzeko borondate faltak, batetik, eta ingurumena zaintzeko herritarren kultura ahulak, bestetik, tokiko ingurumen kudeaketa eskasa ekarri dute, eta horrek ingurumen baldintza prekarioak eta osasungaitzak sortzen ditu.

Egoaizia erakundeak lankidetzat proiektuak egiten ditu 2002. urteaz geroztik **Peruko Piura eskualdeko**

landa eremuko komunitateekin eta CIPCA Centro de Investigación y Promoción del Campesinado elkartarekin batera; barrutien garapena eraikitzen laguntzen dute, herritarrek ere modu aktiboan parte hartuta eta lurraldearen, genero ekitatearen eta ingurumen iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta. Gobernuko agintarien eta gizarte zibileko erakundeen artean lan koordinatua eta egituratua finkatzea lehentasunezko estrategia da pertsonen eta haien komunitateen giza garapen iraunkorra lortzeko.



“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko. 2. Fasea” (GFA 2019 ERAL 016/01) proiektuaren hezkuntza materiala. Zabalketa Elkartek eta Tau Fundazioak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.

Egileak: Egoaizia eta Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Egoaizia

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina

D.L. SS-691-2019

Egoiziaren eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz.

www.egoaizia.org www.zabalketa.org

